

Ibilbide hau natur-baliabide bereziek dituzten lekutatik pasako denez arren eskatzen diegu parte-hartzaileei **begirunez ibil daitezela**.

## Laguntzaileak



ZARAUZKO UDALA



**PAGOETA**  
MENDIZALE-ELKARTEA

# Zarauzko Iraupeneko III. Ibilaldia 2012ko Maiatzak 6



EUSKAL MENDIZALE  
FEDERAZIOA

2012 Euskal Herriko Iraupen Luzeko  
Ibilaldien 11. Zirkuituan sartua



Irteera - Amaiera

Kontrola

Anoa gunea. Urdanetako anoa  
gunean, salda dago.



[www.zirkuitua.com](http://www.zirkuitua.com)  
[www.pagoeta.com](http://www.pagoeta.com)

# Ibilaldiaren arautegia

Pagoeta Mendizale Elkarateak antolatutako ibilaldi hau mendian egindako ibilaldi herrikoia da, kirola, eta kultura dira helburu bakarra. Beti ere, Natura errespetatuz mendizaletasuna bultzatzea, eta Zarautz inguruko mendi, txoko, eta ibilbideak erakustea.

Zeharkaldi hau Euskal Herriko Iraupen Luzeko Ibilaldien 11. zirkuituan sartua dago.

Ibiltarien partehartzea sustatu asmoz, eta fisikoki hain prestatuak ez daudenentzat **Ibilaldi Txikia** antolatu da.

## ERANTZUKIZUNAK

Parte hartzaileek garbi izan behar dute zeharkaldi hau mendi-ibilaldi bat dela, eta kirol-jarduera horren arriskuak dituela. Pagoeta Mendizale Elkarateak ez du bere gain hartzen parte-hartzaileei ibilbidean edo ibilaldiaren ondorioz gertatutako istripuen, galdutako objektuen, edo eta izandako min eta zaurien ardura. Parte hartzaileek uko egiten diote Elkaratearen kontra erreklamazioak jartzeari, edo indemnitazioak eskatzeari.

Mendi jarduera hau edo gainerakoak egiteko Federatua egotea gomendatzen da. Elkarateak, jarduera hau bertan behera uzteko, edo atzeratzeko eskubidea du, eguraldia edo bestelako arrazoiak tarteko.

## IBILALDIAK

**Zarauzko Iraupeneko Ibilaldia:** 2012eko Maiatzaren 6an egingo da. 45 km. ingurukoa izango da. Igoera pilatua; 2.350m. Jaitsiera pilatua; 2.350m. Zarautz - Garate gaina - Meaga - Indamendi (kontrola) - Urdaneta auzoa (anoa gunea) - Altzolaraz - Santa Engrazia baseliza (kontrola) - Komisioiatza - Iturriotz (anoa gunea) - Altzuruzelai - Murugil - Pagoetako gurutzea (kontrola) - Laurgain auzoa - Iturritan Pagoetako Parketxea (anoa gunea) - Agorregi (kontrola) - Lukun aisia gunea - Zarautz 9/10 ordu inguruan burutzen da.

**Ibilaldi Txikia:** 27.300 km. Ingurukoa. Igoera pilatua; 1.340m. Jaitsiera; 1.340m.

Zarautz - Garate gaina - Meaga - Indamendi (kontrola) - Urdaneta auzoa (anoa gunea) - Pagoetako gurutzea (kontrola) - Laurgain - Iturritan, Pagoetako Parketxea (anoa gunea) Agorregi (kontrola) - Lukun aisia gunea - Zarautz. 6/7 ordu inguru.

## IZEN-EMATEA

Izena emateko epea: apirilaren 12tik maiatzaren 3ra.



**Federatuek;** 10 €, eta **federatu gabeek** 12 € ordaindu behar dute ondorengo kontu-korrenteetako batean dirua sartuaz, eta ordain agiria Pagoetako Elkartera helarazi edo irteera gunean kontrol-txartela jasotzerakoan aurkeztuz. Federatuek federatu txartela ere erakutsi behar dute.

**kk. Euskadiko Kutxa (Kaja Laborala):** 3035 0029 65 0290015562

**Kutxa:** 2101 0076 51 0107873523

Izen-ematea: **www.zirkuitua.com** orrian, **www.pagoeta.com**, (telefonoa: 943 132911).

**Izena emateko behar diren datuak:** Izena eta bi abizen, federatuta



zauden ala ez, eta federatua bazaude, klubaren izena, eta N.A. zenbakia.

**Parte-hartzaileen kopurua 1000 ibilbaritara mugatua da.**

## ZERBITZUAK

Elkarateak lokal bat prestatuko du koltxonetekin, bezpera gauen bertan lo egin nahi dutenentzat. Zerbitzu hori erabili nahi dutenek izena ematean jakinarazi beharko dute.

**DUTXAK;** Ibilaldia amaitzean dutxatu nahi duenarentzat zabalik egongo dira Aritzbatalde Udal Polikiroldegian 13:30etik 18:30era.

## IRTEERA

**Zarauzko Iraupeneko Ibilaldia** goizeko 7:00ean hasi, eta era mailakatuan eta,

izen-ematearen hurrenkeraren arabera emango da irteera.

**Ibilaldi Txikia:** Goizeko 8:00ean hasiko da, eta partehartzaileek xehetasunei dagokionez aurrekoaren arauak bete behar dituzte.

Irteera eta amaiera **Zinema, Pilota-leku zaharrean** (Tren geltoki ondoan).

## KONTROLAK

Parte-hartzaileek **Iraupeneko, ala Txikia-ri** dagokion ibilbidea egin, eta ezarritako kontroletatik igaro behar dute. Kontrol horietan martxa-txartela erakutsi behar da, zigilua jartzeko.

**Kontrolak;** Bakoitzaren kontrol-txartelean adierazitako gutxieneko

eta gehieneko denbora tartean egongo dira zabalik.

**Ordutegi horretatik kanpora doan ibiltaria AUTOMATIKOKI KANPORATUA gelditzen da.**

## BALIZAK

Ibilbidea plastikozko zintzen bidez markatuta egongo da. Antolakuntzako kideek azken partehartzailearen atzetik egingo dute ibilbidea, zintak jasoaz, eta zeharkaldia itxiz.

## HORNIDURA

Parte-hartzaileei jarduera hau egiteko beharrezkoa den elikagaia ekartzea gomendatzen zaie. Antolakuntzak fruitu lehorrak, fruta, eta freskagarriak jarriko ditu.

Ibilbideko gune estrategikoetan sorospen zerbitzuak egongo dira.

## ERRETIRADA

Ibilbidean zehar erretiratzen diren parte-hartzaileek antolakuntzako kideei eman behar diete txartela, edo bestela 689 045321 telefono zenbakian jakinarazi. Erretiratze punturik egokienak Urdaneta auzoa, Iturriotz, eta Iturritan dira.

## BUKAERA

Antolakuntzak ezarritako denboren barruan (Iraupeneko Ibilaldia 7:30 - 11:20, eta Ibilaldi Txikia 5:45 - 9:15) ordu tartean zeharkaldia burutu, eta hori ziurtatzen duen martxa-txartela erakutsiz gero diploma, eta oparia emango zaie helmugan.